

t a i l e r r a / t a l l e r

± ORDRE

**Urtarrilaren 10etik Otsailaren 5era
Del 10 de Enero al 5 de Febrero**

Koordinaketa/Coordinación: **JEAN-LUC
MOULÈNE & VINCENT LABAUME**

± *Ordre hiriri buruzko hausnarketa eta pro-
dukzio tailerra da: artistek nola errepresentatu
duten, gaur egungo hiri modernoan inguru
mediatiko, sozial eta politikoan irudiak sartzeko
arazoak. Tailerra Jean-Luc Moulène-k eta
Vincent Labaume-k egindako lanean dago
oinarrituta, bi artista horiek Pariseko Arte
Modernoko Museoak 1997an antolatutako
Déposition kartel erakusketarako egindako
lanean —erakusketa hori gero Donostian ere
egon zen ikusgai—. Tailerraren bukaeran auke-
ratutako zenbait partaideren proiektuak jarriko
dira ikusgai.*

Antolakuntza

1.zatia. Urtarrilaren 10etik 14ra. ± Ordre
tailerraren eta *Déposition* erakusketaren
aurkezpena. Partaideek banaka egindako
proiektuak aurkeztu, irizpideak eman, ana-
lisia egin eta zenbait proiektu aukeratu.
Vicent Labaume eta Jean Luc Moulènen
parte hartzea *Le Document*-en inguruan, hau
da, ikuspuntuak hartzeari eta idazkerari
buruzko lanaren inguruan.
2.zatia. Urtarrilaren 15etik 26ra. Banan-
banako ikerketak, maketak prestatzea eta
harremanak.
3.zatia. Urtarrilaren 27tik Otsailaren 4ra.
Parte hartzaileen lanak aukeratu, eztabaida,
zuzenketak, iritziak... *Déposition* zehaztu,
hedatu, zabaldu. Partaideen lanak ± Ordre
erakusketan ikusgai jarri. Amaiera.

Erakusketa

Otsailaren 5ean. *Déposition* eta ± Ordre
erakusketen inaugurazioa.

Biografiak

JEAN-LUC MOULÈNE Artista hau 1955ean jaio
zen, Reims hirian, Frantzia. Parisen bizi eta
lan egiten du. 1985etik hona, Moulènek
produkzioa, agerketa, zabalkundea eta irudi
garaikideak biltzen dituzten baldintzen gai-
nean lan egiten du. Besteak beste, *Figures de
Passage* eta *Architecture de Seuil* egin zituen
1994/95ean, *Déposition* Parisko Arte Modernoko
Museoan, *Media-Plan* Kasseleko Documenta X-
ean eta, oraintsu, *24 objets de Grève* aurkeztu du.
VINCENT LABAUME Poeta hau 1965ean jaio zen
Cosne-Sur Loiren. Parisen bizi eta lan egiten
du. France Inter irradian irakurritako gaurko-
tasuneko poemak lan hartatik (1982) gaur
arte, Labaumek publizitate lan soinuak,
saio eta komedia musikalak eta irrati progra-
mak (France Culture 1999) egin ditu.
Labaumentzat, zentzuak igortzeak, esate-
rako, seinaleak eta soinuak, pentsamendu
kritikoa eta, aldi berean, sustapena dakar,
non kazetari-publizisten praktika bisual/
idatzizkoak kontrajarrita daude artista-poeten
irudi/testu praktikoekin.

± *Ordre es un taller de reflexión y de produc-
ción sobre la ciudad, su representación por los
artistas, la inscripción problemática de las imá-
genes en el contexto mediático, social y político
de las ciudades contemporáneas. El taller estará
inspirado en el trabajo realizado por Jean-Luc
Moulène y Vincent Labaume para la exposición
de carteles Déposition producida en 1997 por el
Museo de Arte Moderno de París y reutilizada
en San Sebastián. El taller acabará con la pro-
ducción de los proyectos de los participantes
seleccionados.*

Organización

Fase 1: Del 10 al 14 de Enero. Presentación
del taller ± Ordre y de la exposición
Déposition. Presentaciones, orientaciones,
análisis, selección de los proyectos indivi-
duales de los participantes. Intervención de
Vicent Labaume y Jean-Luc Moulène sobre
Le Document, trabajo concreto de tomas de
vistas y de escritura.
Fase 2: Del 15 al 26 de Enero. Investigaciones
individuales, preparación de las maquetas,
contactos.
Fase 3: Del 27 de Enero al 4 de Febrero.
Selección, discusiones, correcciones, impre-
sión/realización de los trabajos de los parti-
cipantes. Fijación de *Déposition*, distribución,
difusión, "apariciones" de los trabajos ± Ordre
de los participantes. Finalización general.

Exposición

El 5 de Febrero: inauguración de *Déposition* y
± Ordre.

Biografías

JEAN-LUC MOULÈNE Artista nacido en 1955 en
Reims, Francia. Vive y trabaja en París.
Desde 1985, Moulène trabaja sobre las condi-
ciones en que se origina la producción,
aparición y difusión de las imágenes con-
temporáneas. Entre otras obras, ha realizado
Figures de Passage y *Architecture de Seuil* en
1994-5, *Déposition* en el Museo de Arte Moderno
de París, *Media-Plan* en la Documenta X de
Kassel en 1997, y últimamente ha presentado
24 objets de Grève.

VINCENT LABAUME Poeta nacido en 1965 en
Cosne-Sur-Loire. Vive y trabaja en París.
Desde sus primeros poemas de actualidad
leídos en la emisora France Inter (1982),
Labaume ha realizado obras sonoras de
publicidad, acciones y comedias musicales,
programas de radio (France Culture 1999).
La emisión de sentidos, tales como señales
y sonidos, implican para él un pensamiento
crítico y a la vez promocional, en el que las
prácticas visuales y redaccionales de los
periodistas o publicitarios se confrontan a
prácticas de imagen y texto de los artistas o
poetas.

www.gipuzkoa.net/arteleku

tat-tro

tatxismoa: Berrogeita hamarreko eta hirurogeiko urte-hasierako pinturaren estilo-korronte bat adierazten duen terminoa da. Frantseseko *tache* = zetaka hitzetik dator eta, zentzurik zorrotzenez, automatikoki egindako pintaketa-modu bat adierazi nahi du, pintatzen hasi, norberari modu guztiz espontaneoan ateratzen zaion bezala, eta horrela lan egiteko modua alegia. Deitura hau (*tachisme*) 1950. urte inguruan eratu zuen Michel Seuphor kritikari frantsesak eta, orduan, Wols, Mathieu, Hartung eta Sauraren obrari egiten zion erreferentzia nagusiki. Tatxismoa pintura espresionista, emozional eta abstraktu bezala garatu zen surrealismo automatikotik abiatuta, eta antzeko mugimendu paralelo bat izan du ipar-ameriketako *action painting*-aren *dripping* deitu horretan. Ekintzazko prozesu sortzailearen bitartez errealtatearen sentimenezko esperientzia intuizioaren dinamika informalekin lotzen da Wols-engan, eta subjektibitate garbienaren irudimenezko errealtatera iristen da azkenean horrela: “Artista batek ziurtasun osoarekin jasotzen du ikusten duena... Artista batek bere begien aurrean azaltzen zaion horretatik haratago begiratu behar du” (Wols). Bulkada bidez egindako pinturak ekintzak autoafirmazio autentiko eta aratza formulatzeko aukera askoz ere areagotuagoa eta haziagoa eskaintzen du, eta ez da aurretik pentsatutako plangintza erreflexibo baten eragina sortzeko jardueraren fluxu bultzatzailea asaldatzera iristen.

tautologismoa: Erretorikatik ateratako kontzeptua da, eta gauza bat bera bi hitz sinonimoren bitartez azaltzea esan nahi du. Gure garai modernoetako arte plastikoetan, identitatearen eta itxurako identitatearen arteko bereizketa bezala azaltzen da kontzeptu hau. Zentzu honetan, errepresentazio plastikoaren bidez ez da irudiaren izena bi aldiz errepikatu besterik egiten, bere errepresentazio plastikoa egiterakoan errepikatzen baita hain zuzen ere. Izena eta objektua elkar identifikatzera eramaten dira, eta, beraz, printzipio honen hitzez hitzeko interpretazioak absurdora eramaten dezake (Timm Ulrichs).

testu-irudia: Antzinatean ere garatu izan zen adierazpide artistikoa da. Greziako kulturaren idazkeraren zeinua aurkitu zen elementu plastiko bezala eta errepresentazio figuratiborako baliabide bezala erabili izan zen. Tradizio horrek etenik gabe jarraitu zuen gero ere, eta barrokoaren garaian iritsi zen bere punturik gailenena, izan ere testu-irudia bere forma ludikorik afektatu eta finenean, fonema-hitz eta irudi-hitz bezala osatuta, gizarte kultibatu baten ohitura eta azturen ezaugarri izaten zen. Testu-irudia, airosoki konposatuta, epigrama bezala erabiltzen zen era guztietako helburu posibleekin: ospakizun baten aitzaiaz, zorionak emateko, edo gonbite bat luzatzeko. Mende honen hasieran, futuristek berriro heldu zioten tradizio horri, atentzioa deituz testu-irudiarekin lortzen den “medioen” sintesiaren inguruan. Sintesi horrek ondo erantzuten zion futuristek zeukaten funtsezko gogo-nahiari, alegia arte guztien arteko muga jeneriko guztiak desagertaraztea nahi baitzuten haiek “musika, literatura eta pinturaren konbinazio” baten mesedetan. Artearen ideia nagusi horrekin ulertu zituen Apollinaire-k —futuristekin lotuta zegoenak— bere testu-irudiak ere; Kurt Schwitters-en poesia plastiko eta testu-kolageetan gertatzen zenaren antzera, haiek espresio plastikoaren ahalmen berri bat erakusten dute litografia librean. Apollinaire eta Schwitters-ekin musika-notazioko zeinuk eta berebat hizkuntza idatziaren letra, silaba eta fonemak ere beren kualitate plastikoa berreskuratzen zuten. Idazketa-zeinuen errepertorioak arte-bide berri bat osatzen zuen, eta honek bere kualitate eritmiko bereziarekin sentikortasun plastikoa eta idiomatikoa erdibana erreibindikatzen zituen. Aro modernoan testu-irudiari biderkatu egin zaizkio bere ahalbide plastikoak. Irudi lineal, garbi eta abstraktu bat egiteko hezur-dura bezala fonemak, hitzak eta letrak erabiltzen dituen irudi-poesia zurrunki abstraktuaren ondoan, orain testu-irudien kolagea azaltzen da, idazkeraren elementu plastikoetan sintetizatutako fotomuntaketa (egunkari, kartel eta publizitate-esloganen moduan). Irudi-testuaren erakargarritasuna hain zuzen ere bere espresioaren zifraketan aurkitzen

da, izan ere ikuste-ekintzak bakarrik, irakurleak atzitzen duenak, kontsumatzen baitu haren edukia. “Ohiki aurretik ezarritako zentzu baten intentzioak gidatu ohi du hizkuntza-materialaren aukera eta antolakerak, baina hemen, berriz, zentzu-hartzea ondoren egiten da eta irakurleak bakarrik egiten du” (Franz Mon.)

testura: Latineko hitzetik hartutako kontzeptu honekin izendatzen ditu Dubuffet-ek bere sentsazio subjektibo-emozional naturalen genesi konfiguratzaile gisa —formarik gabekoa alegia, baina sintetikoa— ulertzen duen bere “arte brut” deitu koadroetako profil grafikoak. Testurak berak, bakarrik hartutako elementu bezala, apunte-moduan egindako baieztapen grafikoaren osotasunean hartzen du bere adierarik beteena.

tipografia: Inpresio-teknika bat da, inprimategiko obra batean testu eta ilustrazioaren arteko konfigurazio aldakor moduan hartzen denean. Idazkera-motaren, hau da, tipoaren, hautapenak, letra-tipoaren gorputzak, papearak, formatuaren ipinkerak, justifikazioak, enkoaderazio-moduak eta azalek mugatzen dute inpresio baten tipografia. Letra-gorputzaren aldaketa eta tipo desberdinen aukera alternatiboaren bitartez egindako tipografiaren erabilera librea —futurismoaren, dadaren eta surrealismoaren ondoren— artearen baliabide konfiguratzaile garrantzitsu bihurtu da, bereziki poesia konkretua deitu izan den horrekin.

tonalitate kromatikoa: Kolore baten argitasunaren, iluntasunaren edo luminositatearen kalitatea ematen du kontzeptu honek, hau da, bere argi-intentsitatea; horrek aldi berean, sakontasun-efektu berezi bat ere eman dezake, jakina.

trompe-l'oeil: Frantseseko kontzeptu arruntetik hartuta dago eta pintura errealtatean ematen den ilusio optikoa adierazteko erabiltzen da; azalera dimentsiobikoaren gainean gezurrezko sakontasun-efektua sortzen du benetan eta, beraz, errealtate-ilusia. ■